

## KOSTUEN EGITURA

### HASIERAKO INBERTSIOA

Gure ideia hasieran 10.000-20.000€ arteko inbertsio bat egitea da. Prezio horretan material on batean inbertitu nahi dugu, publizitate on batean honela nahiz eta hasieran hainbeste diru ez irabazi, salmentekin diru hori asetzeko izango delako, jendea produktu honak direla ikusten badute eta gainera geroz eta jende gehiago ezagutzen baditu, gutxinaka gure salmentak handituz joango dira eta honela dirua irabazten joango gara. Garrantzitsua iruditzen zaigu diru kantitate on bat inbertitzea epe luzera enpresa ondo funtzionatu ahal izateko. Honetaz gain diru horren barruan sartzen da langile on batzuk kontratatu ahal izatea berriro ere produktuen egoera on bat bermatu ahal izateko eta ondorioz hauei soldata kantitate on bat eraman beharko dute.



### GASTUAK

Gure enpresa, enpresa ertain bat da. 50 langile ingurukoa langile horien barruan talde desberdinak daude. Talde bakoitzak lanaren parte batez enkargatzen da horietan gastua dago, haien soldata ordaindu behar delako, gainera publizitate on bat egin nahi dugu horren ondorioz dirutza bat inbertitu behar dugu, publizitatea telebistan, egunkarietan, poster bidez, irradian etb. egoteko, honetaz gain publizitatean inbertsio on bat iruditzen zaigu aurrerantzean probabilitate gehiago dagoelako salmenta hobeagoak edukitzeko. Izan ere, gaur egun jende gehienak sare sozialak ditu, eta hauen bitartez bezero asko lortu ditzakegu, nerabeak batez ere. Gainera dirua inbertitu nahi dugu eskulanean produktu on batzuek lortzeko, honela produktu on batzuk lortuz, haien garantia bermatu dezakegu eta arazorik gabeko produktuak sortu. Ondo egindako produktuak, gehiago iraugo dute, beraz, hor ere dirutza ordaintzen da, hau da, aurikularrak nahiko garestiak dira, baina denbora asko irauteko ala izan behar du.



